

Teknologia berrien erabilera (telebista, Internet, bideojokoak) familian.

Teknologia berriak eta familiak bikoetaz hitz egiten dugunean, seme-alabek telebistaren, Internetaren, bideojokoen,... eta horrelakoen erabilera arrazional egiteaz ari gara. Familiak berak ikuskatu behar ditu programen, jokoen, web orrialdeen eta abarren edukiak.

- **Telebista**

Gaur egun telebista familiaren beste elementu bat da eta, horregatik, etxean umeak daudenean ongi erabili behar da. Gurasoek seme-alaben denbora eta eduki aproposak aukeratu behar dute eta horretarako ezinbestekoa da alde zurretik programazioa ezagutzea. Gainera, seme-alabak telebista ikusten ari direnean gurasoak beraiekin egotea komeni da; horrek edukiei buruzko elkarrizketa bultzatzen du eta seme-alabek fantasia eta errealitatea bereiz dezaten lagunduko du.

Telebista gehiegi erabil ez dadin, telebista beste ariketa batzuekin tartekatuta daiteke, esaterako, jokoak, irteerak, irakurketak, ... etab. Halaber, umeen logetan ez da telebistarik jarri behar; telebista etxeko guztiek erabiltzen duten gela batean egotea komeni da.

- **Internet**

Sareak baditu abantailak gurasoen nahiz seme-alaben ezagutza handitzeko. Informazio kantitate handi batera heltzeko erreminta erraza da, eta edukiak era erakargarrian aurkezten ditu, interesa sortuz (soinua, koloreak...).

Dena den, Internet oker erabiliz gero arriskuak sor daitezke eta familia izango da hori ekidin behar duena. Gurasoak erne egon behar dira euren seme-alabak ordenagailuaren aurrean isolatuta gera ez daitezen. Era berean, edukiak kontrolatu behar dituzte, biolentzia, drogak, pornografia, eta abarrei buruzkoak izan ez daitezen.

Hezitzaileek eta gurasoek badituzte laguntza batzuk Internet-en, nahi ez diren edukiak kentzeko eta seme-alaben adinen araberako edukiak erregulatzeko.

- **Bideojokoak**

Gaur egun, familia portzentai altu batek ordenagailua eta kotsola dituzte, eta horregatik, oso garrantzitsua da helduek seme-alaben erabilera egokia kontrolatzea. Horretarako, hurrengo garrantzitsua da:

- Jolastu den zatia grabatzea ahalbidetzen duen joko bat aukeratu.
- Jokalari bat baino gehiagoko jokoak aukeratu.
- Pantaila kopuru oso handia dituzten jokoak ekidin (antsietatea sortzen dute, amaiera ikusten ez delako).

- Erasokortasuna eta suntsipena indartzen duten jokoak ekidin.

Umeei jolas hezigarriak, kirol jokoak, abentura edo estrategia jokoak eskaini behar zaie, horietan ez baitira goian aipatu diren ezaugarriak agertzen.

LABURPENA

Gurasoak euren seme-alaben gizarteratzean egile aktiboak dira eta, horregatik, ezin dute haur hezkuntza ikus-entzunezko komunikabideetan edo teknologia berrien esku utzi, nahiz eta azken hauek oso aurreratuak izan. Erabiltzen diren teknologiak ikuskatu beharra dago eta programa, joko, eta abarren aniztasuna bultzatu behar da.

Dra. Ainhoa Manzano Fernández
Dr. Juan Luis Martín Ayala
ETXADI
Familia-Psikologia Unibertsitate-zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia